

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Fondoa eta forma politikagintzan

Eremu labainkorra den arren, mintza gaitzen edukiaz eta formaz politikagintzan, mamiaz eta azalaz, mezuaren eta moduaren arteko harremanaz. Gaiari heltzeko aitzakia, Gasteizen talde feministen eta blusen eta nesken artean sortu zen ika-mika da. Gaia sintetizatzeak duen arriskua neureganatuta, honela laburbil daiteke afera: sei gaztek ahoz eraso zioten emakume bati jaietan, emakumeak kexa azaldu zion Blusen eta Nesken Batzordeari eta erasotzaileak desenkusatu egin ziren, baina Batzordeak ez zuen aplikatu aurretik Bilgune Feministarekin sinatuta zuen protokoloa, non esaten den erasotzaile oro kanporatu behar dela txosna gunetik, bai eta kuadrillatik ere blusa izanez gero.

Bilgune Feministak alde zuzen iragarri zuen eten egingo zuela kuadrillen jaitiera Jatorrak taldekoak igarotakoan, neskarik ez duen kuadrilla bakarria delako eta, kasualitatea ala ez, erasotzaileak kuadrilla horretakoak zirelako. Jaitzieraren egunean feministek, buruak txanoz estalita, pasealdia eten zuten eta istiluak sortu ziren feministen eta kuadrillakoen artean. Hortik etorri da eztabaida interesgarria sare sozialetan: forma azal hutsa da ala mezuaren parte da? Mezuaren parte bada, ez da arrazoi nahikoa forma ere gogorra izateko? Formak gorde behar dira zapaltzailea den arauaren parte izanda?

Eta, bestetik, irauli nahi duen orok eskandaluzko izan behar du eta deseroso? Bentzitu ala konbentzitu egin behar du iraultzaileak?

Argi dut irauli nahi duenak ezinegon sorraz behar duela sisteman, zutoinak arrakalatu eta egitura osoan pitzadurak sortu justiziak bidea egin dezan. Sistemak mehatxaturik ikusi behar du bere burua indar berriaren aurrean. Kontua da nola lortu efektibitate handiena egintan eraginkorra izan dadin interpellazioa, sistema burgesa abila baita desaktibatzen erasogarria suertatzen dakioken mehatxu oro: fagozitu egiten du, indargabetu eta gerora komertzializatu ere egiten du bere balioak kolokan jartzen dituen (hippy eta punk mugimenduak adibide); desprestigiatu egiten du kexaren eragilea, mugimendu sindikalariekin eta feministarekin egin ohi duen bezala.

Sindikalismoak eta feminismoak beren borroka-tresnak etengabe berrasmatzeko beharrezkoak direla, sistemak ahalmen handia duelako aldarrikapen justuak indargabe uzteko: greba orokorrak indarra galtzen du errepikapen hutsa bihurtzen denean, eta feministen ekintzak erraz estigmatizatzen dira gizartean erroturik dauden aurreiritzi matxistak erabilita. Iraultzek alternatibak bilatu behar dituzte etengabe, eta mezu bera emateko forma berriak asmatu behar dituzte, bi helbururekin: batetik, baliagarria den mezua ez zaharkitzeko eta gaurkoturik mantentzeko, eta, bestetik, mugimendutik kanpo dauden herritarrak balio berrietara erakartzeko. Eta posible da asmatzea, herri harresiek halaxe frogatu baitute gazte mugimenduaren borrokan, edo Pussy Riot taldeak borroka feministan. Biek ala biek agerian utzi dute jende askoren babesa bereganatzea beste forma bat ematen diotenean betiko mezu politikoari.

Edukia bezainbeste forma erreibindikatzen dut, mezua eraginkorragoa bihurtzeko: batzuetan talka, beste batzuetan topo; interpellatu eta pedagogia egin; deseroso sentiarazi eta konplizitateak bilatu

Fagozitateaz eta desprestigiatzeaz gain, sistemak badu beste mekanismo bat ezkerreko aldarrikapenak desaktibatzeko: sinplifikazioa. Ez du axola zein den gaia: printzipio etikoak, abortua, immigrazioa ala Estatuaren funtzioa arlo finantzarioan. Sistema beti saiatuko da dimentsio ezberdinak bakar batean gutxitzen, eskuinak munduaren kosmogonia integral eta koherentea eman nahi duelako, non ezberdintasun sozialak sistemikoak eta naturalak diren eta, ondorioz, ordena naturalean ezer aldatzerik ez dagoela frogatu nahi duen.

Horren aurrean, edukia bezainbeste forma erreibindikatzen dut, mezua eraginkorragoa bihurtzeko: batzuetan talka, eta beste batzuetan topo; interpellatu eta pedagogia egin; deseroso sentiarazi eta konplizitateak bilatu. Zailena da, baina, jakitea noiz jokatu batera eta noiz bestera. •